

la perfumería

2018KO GABONAK

de Mercadona

ESTREINATU
BILDUMA

ELLA

BETI DA
PROTAGONISTA

Gabonak

20 IDEIA

BAINO GEHIAGO
OPARITZEKO ETA DENAK
HARRITUTA UZTEKO:
OSATU ZURE DESIOEN
ZERREDA!

**FESTA
HASTERA DOA!**
TXIKIENTZAKO
OPARITXOEN
MINIGIDA





ÉL

EAU DE PARFUM
POUR HOMME

ELLA

EAU DE PARFUM
POUR FEMME



SISBELA

COSMETICS

EDIZIO MUGATUA



SERUM INDARTZAILEA
BIRSORTZAILE SUSPERTZAILEA

AURPEGI-KREMA,
ADINAREN AURKAKOA
INDARGARRI BERREGITURATZAILEA

BEGI INGURURAKO
BEGI-ZULOEN ETA ZIMURREN
AURKAKOA ETA ARGITZAILEA

AURKIBIDEA

06 ZURE ESKUETAN

Festa hauetan, egin kasu edertasun-aholku erraz hauei; minutu gutxian prest egongo zara, eta azala ezin distiratsuago edukiko duzu. Hauxe duzu Gabonetarako edertasun-gida.

12 BITXI-AZAZKALAK

Distirak eta *glittera* nagusi; benetako harribitxiak balira bezala. Festa hauetako manikura, inoiz baino distiratsuagoa.

14 FESTARAKO MAKILLAJEA

Magia- eta kolore-ukituak *look* bakoitzerako; emakume bakoitzari bere makillajea. ELLA baita Gabon hauetako protagonista nagusia.

20 BILDUMA OSATZEKO

Iritsi da makillaje-paletak eguneratzeko eta gurtzeko ordua. Edizio mugatua da, eta desiratu egingo dituzu.

24 PINK TOUCH

Askotan, detaile txikiek egiten dute perfektu gauza bat; makillajean, halakoak dira *beauty* tresnak. Eguneratu zure makillaje-brotzak, eta emaitza ezin hobea izango da.

26 BIZI ITZAZU GABONAK

Oparitzeko eta harrituta uzteko ideiak, besteak eta zeure burua mimatzekoak. Prest zaudete zuen desioen zerrenda osatzeko?



Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
C/ Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkie. Batzuetan, espazio-arraioak direla eta, gerta liteke produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularrak MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria eta markak edo logotipoak osorik edo partzialki erabiltzea edo erreproduzitzea Mercadonaren baimenik gabe.

Azalean



Hau darama modeloak:
Stellar ELLA itzal matea 02 zk. beltz distiratsua, Stellar ELLA itzal distiratsua 02 zk. kobre-kolore distiratsua, gel-testurako ELLA begi-arkatza, 101 zk. perla-beltza eta Soft Mate ELLA barra 01 zk. gorria.



Zure eskuetan {

Festa hauetan, egin kasu edertasun-aholku erraz hauei; minutu gutxian prest egongo zara, eta azala ezin distiratsuago edukiko duzu. Hauxe duzu Gabonetarako edertasun-gida.



NAHITAEZKOA: GARBITU ETA KENDU MAKILLAJEA

Festa hauen bueltan, gehiago makillatzen gara, eta, beraz, gogoan izan behar dugu zer garrantzitsua den makillajea ongi kentzea, azalak arnasa har dezan eta hidratazio-maila egokian egon dadin. Azala garbi edukitzea da nekearen eta zahartzearen adierazleen aurkako lehen urratsa.

Azal polita edukitzeko, ezinbestekoa da ongi garbitzea, eta, gainera, hidratatzen baduzu, askoz hobeto. **Aurpegia garbitzeko esne hidratatzailea** eta **aurpegi-toniko hidratatzailea** ezinbestean behar dituzu zure apain-mahaian. Makillajea eta eguneko zikinkeria kentzen dute, eta azala goxatu eta hidratatu.

Dena pauso bakarrean egin nahi baduzu, **Micelar** garbitzeko ura da zure aukera: hari esker, pauso bakarrean, makillajea kendu eta azala garbi utz dezakezu. Haren mizelek, imanak balira bezala, zikinkeria- eta makillaje-partikulak erakartzen dituzte. Garbitzeaz eta makillajea kentzeaz gain, azala leun uzten du, eta bereziki egokia da azal sentikorretarako.

Begietako eta ezpainetako makillajea kentzeko, erabili produktu espezifikoak; azala garbi eta ondo utziko dizute. **Begietako eta ezpainetako makillajea kentzekoak**, bi faseko formulari esker, makillaje-arrasto guztiak kentzea lortzen du, baita zailenak ere (adibidez, waterproof makillajeak).





HELBURUA: HIDRATATZEA ETA ELIKATZEA

Azala garbitzea lehen pausoa da; eta, gainera, ongi hidratatu behar da, azalaren berezko edertasuna indartzeko eta itxura osasuntsua izateko. Gabonetako estresak, lorik ezak, elikadura-aldaketak... nekatu-itxura ematen diote aurpegiari, eta kolore hitsa azalari.

Argitasun-serum C Bitaminadunak behar duen argitasuna ematen dio azalari, C bitaminaren eragin birsortzaileari eta argitzaileari esker.

Ondoren, eman **Krema Hidratatzaile**

Orekatzailea. Azido hialuronikoari, E bitaminari eta beste aktibo batzuei esker, azala hidratatu eta leun uzten du. Aurpegiko azalaren koipe-gehegia erregulatzen du, eta azal normal eta koipetsuen oreka berreskuratzen laguntzen du. FPS 10 babes-iragazkiak ere baditu, eguzkitik babesteko.



GOGOAN IZAN

Serumaren eta aurpegiko kremaren arteko desberdintasuna da azken horrek azalaren kanpo-geruza babesten duela, eta serumak, berriz, barruko geruzan ere eragiten duela. Horregatik, batak ez du bestea ordezkatzeko; elkar osatzen dute.





LUXUA AZALEAN

Secreto de Belleza olio lehorrak hainbat onura ditu aurpegiko eta gorputz osoko azalarentzat. Oso erraza da emateko, eta haren testurak ez du koipe-sentsaziorik uzten. Hari esker, tinko eta argitsu geratuko zaizu azala. Olio pixka bat hartu, eta ongi zabaldu; aski duzu aurpegiko eta gorputz osoko azala elikatzeko.

GOMENDIOA

Secreto de Belleza olio lehorrak ilea leuntzeko ere balio du; aski duzu puntetan olio pixka bat ematea, elikatzeko eta distira emateko.



APETA BAT ZURE AZALARENTZAT

Aurpegirako, eskuetarako eta gorputzerako crema hidratatzailea Gabonetako bertsioan dator orain. Mota guztietako azalak mimatzen ditu: hidratatu eta leun uzten ditu. Gainera, usain zoragarria du, eta testura ezin atseginagoa. Eraman zure poltsan; hala, eskura izango duzu beti.

Dermisa negurako prestatu nahi baduzu, eta Gabonetarako ezin ederragoa egon, **Larruazala sendotzeko Caviar Gorputz-krema** duzu aukera onena. Azala leheneratzen eta sakon elikatzen du; hala, aurre egiten dio zahartzeari, eta elastikotasuna itzultzen dio azalari.

Eskuetarako crema nutritibo birsortzaileak, berriz, areagotu egingo du hidratazioa eta zure eskuen eta azazkalen zaintza, jojoba-olioz, karitez eta E bitaminaz aberastutako formulari esker.



KEINU BATERATZAILEAK

Flash hidratatzaileak aurpegia garbi dagoela ematen dira, eta masajea eman behar da, erabat xurgatu arte. Azala unean bertan tenkatu eta argituko da.

Aurpegiko distiren aurkako xaflek, berriz, erraz kentzen dituzte aurpegiko distirak, makillajea hondatu gabe; ezin egokiagoak dira poltsan eramateko eta nahi duzunean ukituak egiteko.





ETA GIZONEZKOENTZAT ZER?

Emakumeek bezala, gizonek ere nahi dituzte berariazko zainketak beren azalerako. **Txori-larrosaren olio birsortzailea** aliatu ezin hobea da negu hotzari aurre egiteko, tenperatura baxuekin azalak hidratazio handiago behar baitu. Aurpegian ez ezik, azala errazago lehortzen den lekuetan eman daiteke, hala nola ukondoetan, belaunetan edo besoen kanpoaldean. Itxura bizia itzultzen dio azalari.

Ezpainek ere gehiago sufritzen dute neguan, azala finagoa eta delikatuagoa baita. Hidratazioa ez galtzeko, erabili egunero **Ezpainetako suspertzailea**. Lehortasunetik babestuko zaitu.



GOMENDIOA

Nahasi olio birsortzailearen tanta batzuk zure ohiko krema hidratatzailearekin; haren eragina indartuko duzu, eta azala leunago eta hobeto elikatuta edukiko duzu.

A woman with her hair pulled back, wearing a shimmering, sequined, short-sleeved top. She is looking slightly to the left of the camera. She is holding a black fabric item, possibly a piece of clothing or a bag, with white ribbons tied around it. The background is a plain, light blue-grey color.

Bitxi- azazkalak

Distira eta *glittera* nagusi; benetako harribitxiak balira bezala. Festa hauetako manikura, inoiz baino distiratsuagoa.



Bai dotore!

Ezkerrekoak, eskuan, ELLA azazkal-esmaltea darama, 844 zk. gorria, eta 845 zk. fantasia, kristal hautsi urrekara; eskuinekoek, 843 zk. esmaltea (gorri-morea) eta 845 zk. fantasia, kristal hautsi urrekara.



843 zk.



844 zk.



845 zk



Ezkerreko orrian, **Night Chic azazkal-kita**, nezesarrarekin, kristal-limarekin, eta nude eta glitter esmalteekin.

MAKILLAJEA

Party

14 2018KO GABONAK



Magia- eta kolore-ukituak
look bakoitzerako;
emakume bakoitzari
bere makillajea.
ELLA baita Gabon
hauetako protagonista
nagusia.

Festa-gorria

Gabonetarako gau berezientarako, egin apustu hau: ezpain eta azazkal gorriak, eta ELLA Hauts Argitzaile perfumeduna, gorputzeko azala leundu eta argitzeko.

GOMENDIOA

Zure betiko gorputzeko kremaren ondoren ELLA Hauts Argitzailea ematen baduzu, azala argiago geratuko zaizu.

Urre- koloreko *Smokeya*

Inoiz hutsik egiten ez duen klasiko bat: begi ilunduak. Lehenik, markatu begirada, eta eman itzal ilun bat, sakontasuna emateko. Ondoren, eman urre-koloreko itzala; ongi difuminatzea da gakoa.

MAISU-UKITUA

Stellar itzal distiratsuari esker, mila aukera dituzu. Ezpain ongi markatu eta makillatu ostean, argi-ukitu bat eman dezakezu ezpainaren erdialdean.

Queen drama

Begirada markatzeko beste pauso bat emango dugu. Ausartu zaitez: eyelinerarekin betertzean marra fin batzuk marraztu ditzakezu, betileei bizia eman, ezpainak eta azazkalak ilundu... eta *Voilà!*




Magia hutsa

Gauerako nahiz egunerako balio du makillaje honek; argitsua eta sofistikatua da, ezin egokiagoa festa hauetan distiratsu agertzeko.

FESTARAKO MAKILLAJEAREN PROTAGONISTAK

Festa-gorria

1 Stellar ELLA itzal matea 02 zk., beltz distiratsua / **2** Stellar ELLA itzal distiratsua 02 zk., kobre-kolore distiratsua / **3** ELLA begietako arkatza, gel-testurakoa, 101 zk., perla-beltza / **4** Betileetarako ELLA bolumen-maskara moldagarria / **5** ELLA begi-arkatza, gel-testurakoa, 202 zk., gorri iluna / **6** Soft Mate ELLA barra 01 zk., gorria / **7** ELLA esmalteak, 843 zk. (gorri-morea) eta 845 zk. (kristal hautsi urrekara) / **8** ELLA gorputzerako hauts argitzaile perfumeduna.



Urre-koloreko Smokeya

1 ELLA begi-arkatza, gel-testurakoa, 101 zk., perla-beltza / **2** Stellar ELLA itzal matea, 01 zk., marroi distiratsua / **3** Stellar ELLA itzal distiratsua, 01 zk., marroi distiratsua / **4** Betileetarako ELLA bolumen-maskara moldagarria / **5** ELLA begi-arkatza, gel-testurakoa, 202 zk., gorri iluna / **6** Soft Mate ELLA barra, 01 zk., gorria / **7** ELLA esmalteak, 844 zk. (gorria) eta 845 zk. (kristal hautsi urrekara) / **8** ELLA gorputzerako hauts argitzaile perfumeduna.



Queen drama

1 Stellar ELLA itzal distiratsua, 02 zk., kobre-kolore distiratsua / **2** ELLA begi-arkatza, gel-testurakoa, 101 zk., perla-beltza / **3** Betileetarako ELLA bolumen-maskara moldagarria / **4** ELLA begi-arkatza, gel-testurakoa, 201 zk., gaueko gorri-morea / **5** Soft Mate ELLA barra, 02 zk., gorri-morea / **6** esmalteak, 843 zk. (gorri-morea) eta 845 zk. (kristal hautsi urrekara) / **7** Eyeliner gel beltza.



Magia hutsa

1 Maquilla-T argitzaile-paleta / **2** Lehorra&Bustia itzala, 06 zk. / **3** Betileetarako ELLA bolumen-maskara moldagarria / **4** Bekainetarako kita / **5** ELLA begi-arkatza, gel-testurakoa, 201 zk., gaueko gorri-morea / **6** Soft Mate ELLA barra, 02 zk., gorri-morea / **7** ELLA azakal-esmaltea, 844 zk. (gorria) eta 845 zk. (kristal hautsi urrekara).



BILDUMA OSATZEKO

(1)




Iritsi da
makillaje-paletak
eguneratzeko eta
gurtzeko ordua.
Edizio mugatua
da, eta desiratu
egingo dituzu.



(2)

MAKILLAJE-PALETAK

la perfumería



Full Look makillaje-kita, makillaje osoa egiteko, eta nahi duzun tokira eramateko. Urre-koloreko paleta-kaxa bat eta bi paleta ditu (aurpegirako paleta eta zuzentzaileak).

Aurpegirako eta Begietarako Paletak (1) hauek ditu: aurpegirako hauts matetzaileak, beltzaran-efektuko aurpegirako hautsa, bekainetarako hautsak (bat argia eta bestea iluna), koloreteak (neon-arrosa eta naturala), eta begi-itzalak (lau tonu distiratsu eta metalizatu, eta bi mate).

Zuzentzaile Paletak (2) zazpi tonu ditu, krema-testurakoak. Perla-zuriak bolumena ematen du, eta oso egokia da argi-puntuak markatzeko; berdeak gorritasunak eta akne-akatsak zuzentzen ditu; lilak tonu beltzak edo berdexkak zuzentzen ditu eta gaueko makillajea argitzen du; Beixak edozein motatako akatsak zuzentzen ditu, azalaren kolorea neutralizatuz; arrosakarak gunea ilunak argitzen ditu; beix ilunak sakontasuna ematen du; eta, azkenik, horiak begi-zulo moreak zuzentzen ditu. Pintzel aplikatzailea erabiliz aplikatu, eta, ondoren, hatz-puntarekin zabaldu.



+ ARGITZAILE-PALETA

Argitzaile-paletak bost tonutako zeta tankerako hautsak ditu: champagne argia, argi irisatua, perla-argia, bisoi-argia eta koral-argia. Paleta hau aparte saltzen da.



ZILARREZKO

MAKILLAJEA

Festarako makillajeak ez du araurik; beraz, hartu zure paleta, sortu beldurrik gabe, eta erakutsi harro zure begiak Gabon hauetan. Look hau lortu nahi baduzu, makillatu zure begiak Aurpegirako eta Begietarako Paletako itzal metalizatu hauekin: espazio-grisa, esmeralda-berdea eta beix argia. Markatu zure begirada Eyeliner gel beltzarekin, eta eman aurpegiko hautsak eta kolorete naturala. Azazkaletan, berriz, Distira Handiko Esmaltea, 18 zk., peonia leuna.



FESTARAKO

MAKILLAJEA

Gabon hauetan, begiak eta aurpegia izango dira zure mihisea, zure inspirazioaren jomuga. Begirada artistikoa lortu nahi baduzu, erabili itzal distiratsu eta metalizatuak: beix-argia, teila metalikoa, beltz matea eta berenjena matea. Alaitu zure aurpegia Aurpegirako eta Begietarako Paletako aurpegiko hautsak erabilita. Azala berdintzeko eta hobetzeko, erabili Zuzentzaileen Paleta, eta azazkaletarako, berriz, Distira Handiko Esmaltea, 52 zk., laba-gorria.





PINK TOUCH

Askotan, detaile txikiek egiten dute perfektu gauza bat; makillajean, halakoak dira beauty tresnak. Eguneratu zure makillaje-brotxak, eta emaitza ezin hobea izango da.



Rose pintzel-kitak nezeser bat eta lau makillaje-brotxa ditu, ile sintetikoak:

- ✓ Hauts-brotxa (1) hauts askeetarako nahiz trinkoetarako erabiltzen da. Aurpegi osoan zabaldu, efektu naturala emateko.
- ✓ Makillaje-brotxa (2) makillaje fluidoetarako nahiz trinkoetarako erabil daiteke. Oinarria ematean, produktu gutxiago erabiltzen da eta akabera perfektua lortzen da.
- ✓ Itzal-pintzel alakatua (3) begirada markatzeko eta delineatzeko erabiltzen da.
- ✓ Azkenik, itzal-pintzela (4) begietako itzalak difuminatzeko erabiltzen da.



MAISU-UKITUA

Ez ahaztu brotxak garbitzea. Ondo egoteko, xaboi neutroarekin garbitu eta horizontalean lehortzea komeni da.



BIZI ITZAZU GABONAK





Oparitzeko eta harrituta
uzteko ideiak, besteak
eta zeure burua mimatzekoak.
Prest zaudete zuen desioen
zerrenda osatzeko?





Rose Nude. Eau de parfuma eta lurrinaren miniatura.



9.60 Woman. Eau de toilette, desodorantea (espraian, gasik gabea), body milka eta bainurako gela.



Soplo. Eau de toilette ehunezko poltsatxoarekin, body milka eta bainurako gela.



Ikiru Femme. Eau de toilette eta lurringailua, bi aldagarrirekin.



Capitulo Oriental. Eau de toilette, bainurako gela eta body milka.



Simply Flowers. Eau de toilette, eau de toilette minia eta esku-krema.

24K Gold Progress. Tratamendu intentsiboa, urre-partikulak erabiliz.

Aurpegirako eguneko babes-krema, gaueko krema multibirsortzailea eta begi ingurukoa.



Elección. Eau de parfuma, eau de parfuma minia eta body milka.



Secretos de India. Aurpegiko eta gorputzeko krema, dutxa-gela, lore-formako belakia eta Flores de Asia apain-mahaiko xaboa.



Zuretzat bakarrik! Uretan pasatu gabe eskuak garbitzeko gela eta esku-krema.



Secretos de India. Apain-mahaiko xaboa, esne hidratatzailea, Flores de Asia dutxa-gela eta lore-formako belakia.




Comotú amor.
Eau de toilette,
bainurako gela eta
body milka.

**Secretos de India
Mandarin & Rose.**
Bainu-gatza, apain-
mahaiko xaboa, eau
de toilette, dutxa-
gela, eta eskuetarako
eta gorputzerako
krema.





Nezeserrak, zenbait modelo eta tamaina aukeran.



Femme Gold & Pink. Eau de toilette minia.





Mickey & Minnie. Nezeserra eau de toilettearekin eta bainu-seta.



Black Panther Marvel. Kolonia freskoa eta gel-xanpua.



Enchantimals. Eau de toilette eta manikura-kita.



Spider-Man Marvel. Eau de toilette, eta gel-xanpua.



Ben10. Eau de toilette eta spinnera, eta giltzatakoa.



Eau My Unicorn. Eau de toilette, ezpainenako distira eta diru-zorroa.



Vampirina. Eau de toilette eta manikura-kita.



Transformers. Eau de toilette, dutxa-gela eta metalezko kaxa.



Enredados. Eau de toilette, ile-luzapenak, ilerako osagarriak eta ispilua.



Opariak



Comotú Fuerza. Eau de toilette, bainu-gela eta desodorantea.



Nezeserrak, modelo eta tamaina desberdinetakoak.



Cool Wood Bosque Místico. Eau de toilette, gasik gabeko desodorantea, bainu-gela eta after shavea.



Ikiru Homme. Eau de toilette eta lurringailua, bi aldagarriekin.



Sesgo. Eau de toilette, xanpua eta bizarra mozteko krema.



102 Hotel Venezia. Eau de toilette, xanpua eta after shavea.



Enciende for him Eau de toilette, xanpua eta nezeserra.



Homme. Eau de toilette minia.



Capítulo Amaderado. Eau de toilette, bainu-gela eta after shavea.



Acción 9.60. Eau de toilette, finkatzailea, gel xanpua eta gasik gabeko spray desodorantea.



9.60 para hombre. Gasik gabeko spray desodorantea, bainu-gela, crema hidratatzailea eta nezeserra.



ELLA BILDUMA
deliplus EDIZIO MUGATUA
COLOR



LUNA

Begietako kita

deliplus
COLOR

